

POLTSIKO ANTZERKIAREN 30. JAIALDIA

Iraila 24 - Urria 10

- **Donostia Kulturak, kultur etheen sarearen bitartez, Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren edizio berri bat aurkeztu du. Hogeitamargarrena da irailaren 24tik urriaren 10era bitartean egingo dena.**
- **Berrikuntza nagusizat, jaialdia aire zabalean kokatutako karpetan egingo da ia bere osotasunean indarrean dauden segurtasun eta osasun arauak bermatzeko.**

Poltsiko Antzerki Jaialdia irailean itzuliko da hiriko kaleetara, azken urteetako otsaileko hitzordua atzeratu ostean. 29 edizioren ondoren ikuslego finkoa duen ekimena da eta urtero jarraitzaile gehiago ditu.

Jaialdi honen **xede nagusia da barietate antzerkia zabaltzea bai haren ohiko jarraitzaileei, baita tradiziozko espazio eszenikoetara joateko ohiturarik ez duen publikoari ere.** Poltsiko Antzerki Jaialdiaren bereizgarria da antzezpenetarako oso ohikoak ez diren agertokietan saioak programatzea. Alabaina, agertoki horiek publikoarengandik hurbil dauden espazioak eta lekuak dira (adibidez, tabernak) eta, gainera, ideia berriekin esperimentatzeko bidea ematen dute.

Hori horrela medio, urte hasierako Covid19aren hirugarren olatuaren eragin handiak bereziki kaltetu zion jaialdiari. Ostalaritza-jardueran indarrean zeuden osasun-mugek, pandemiak gehien baldintzatu duen sektoreetako bat, jaialdi berezi bezain erakargarri hau neguan antolatzea eragotzi zuten.

Hala eta guztiz ere, antolakuntzak edizio hau ez zuen bertan behera utzi eta udazkenara atzeratzea erabaki zuen, egoera hobea izango zelakoan. Zorionez, hartutako osasun-neurriei esker pandemiaren eragina nabarmen murriztu da eta kultur etxeek udazkenari ongietorria irribarrerik onenarekin egitearen alde egin dute.

KARPA HIRU PLAZETAN

Osasun baldintzak oraindik egokienak ez badira ere, jaialdiak berezkoa duen izakera informalarri eutsi ahal izateko antolatzakuntzak egungo egoerara egokitzeo neurriak hartzea erabaki du.

KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL

Indarrean dauden arauak oraindik muga zorrotzak jartzen dizkiete leku itxi eta txikietan (tabernetan, adibidez) bil daitezkeen pertsona kopuruei eta hori medio, programazioaren zatirik handiena karpa batean eskaintzea erabaki da. **Karpa jaialdiko asteburu bakoitzean auzo desberdin batean kokatuko da.**

Jaialdia hiru asteburutan zehar izango da ostiraletik igandera, irailaren 24tik urriaren 10era. Lehen asteburuan **karpa Intxaurrendoko Sagastieder plazan izango da, hurrengo astean Groseko Katalunya plazara joango da eta Amarako Easo plazan amaituko du azken asteburuan.**

Ostiral arratsaldeetan bi emanaldi izango dira eta hiru larunbat eta igandeetan: bata eguerdian familientzat eta arratsaldean beste biak. Salbuespena urriaren 9an izango da, Easo plazan, aurreikusitako lehen bi emanaldien ostean, hiru ikuskizunek osatutako duten amaiera ekitaldia izango baita azken saioa.

Karpan eskainitakoaz gain, **jaialdiak ohiko programazioari eutsiko dio auzo hauetan: Martutene (Etxarriene Zentroa), Igeldo (Igeldoko Ikastetxea), Antigua (Doka), Añorga (Antxon Ayestaran Gunea) eta Bidebieta (Kontadores).**

Sarrera librea izango da edukiera bete arte eta unean-uneko indarrean dauden osasun-neurriak beteko dira.

Egungo egoerari egokitutako proposamen hau kultur etheen sarearen eguneroko lanaren adibide argia da, hiriko kultur programazioei bestelako begirada ematen dietena, herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak baitira.

Edizio honetan ere, **Euskarazko Poltsiko Antzerki Sorkuntzaren XI. deialdian irabazle** eta finalista izan diren taldeek parte hartuko dute. Poltsiko Antzerki Sorkuntzaren deialdia Donostia Kulturak antolatzen du, Euskara Zerbitzuarekin eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin lankidetzan. Aurkeztutako proiektuek maila altua erakutsi dute eta aukeraketa ez da erraza izan. Parte-hartzaileen batez besteko adina gaztea izan da.

Guztira, **11** proposamen jaso ditugu Poltsiko Sorkuntzako deialdian. *Dxusturi Teatroaren Lakoste* lana izan da irabazlea eta *Zutani Teatroaren Bete ingoiu*, berriz, finalista.

Ekimen honen xedea, poltsiko antzerkiaren eta, oro har, formatu txikikoaren esparruan euskaraz dagoen eskaintza urria bultzatzea da. Proiektu irabazleak **4.000 euroko** laguntza jasoko du, eta finalistak, **3.200 eurokoa**, antzezlanaren garatu eta ekoizteko.

PROGRAMAZIOA

Donostiako Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiak programa zabala eskaintzen du edizio berri honetan, eta tartean 2 estreinaldi izango dira, aipatutako Antzerki Sorkuntzako **Lakoste** lan irabazlea eta **Bete ingoiu** finalista. Era berean, Gorka Aginagalde e Iñigo Salineroren **Culturas milenarias**, Virginia Imazen **Pronoia** eta Las Felliniren **Show de transtornismo**

Antzerkia, umorea, bakarriketak, musika... Horiek izango dira, hain zuzen, jaialdi honen osagai nagusiak, eta gaurkotasuneko gaiak jarriko dira oholta gainean, kritika eta urratzea nahasita, bizi dugun munduari buruzko ikuspegi desberdina eskaintzeko.

KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL

Betiko moduan, bi hizkuntza ofizialen erabilera eta emakumeen presentzia nahiko parekatuak izatea lortu da.

Guztira **17 konpainiek 32 emanaldi eskainiko dituzte** eta horietatik 16 euskaraz izango dira eta gainerakoak 16ak, gaztelerez. Emanaldiak hiriko 8 espaziotan banatzen dira

PROGRAMA ETA AGERTOKIAK

Irailaren 24tik urriaren 10era, emanaldiak eskainiko dira hiriko hainbat enparantza eta espaziotan, beti ostiraletik igandera.

Ikuskizun guztietarako **sarrera doan** izango da eserlekuak bete arte eta unean-uneko segurtasun eta osasun neurriak beteko dira

Hauxe da 2021eko edizioaren programazioa:

LAKOSTE

DXUSTURI TEATROA
ENERITZ ARTETXE
UMOREA
euskara

Sagastieder plaza (karpa). Iraila 24, 18:00

Igeldoko Ikastetxea. Iraila 25, 19:00

Katalunia plaza (karpa). Urria 03, 12:30

Etxarriene Zentroa. Urria 08, 19:00

Poltsiko Sorkuntza Lehiaketaren aurtengo edizioko irabazlea. *Karramarroa* 50 urteko emakume bat da, bitxia, mihiluzea, zorrotza eta zirtolaria. Hainbat gai partekatuko ditu: estralurtarrak, artistak, familia estandarra, krokodiloak, menopausia...

CULTURAS MILENARIAS:

ROLAND Y GARRÓS
GORKA AGINAGALDE
& IÑIGO SALINERO
BAKARRIZKETAK
gaztelera

Sagastieder plaza (karpa). Iraila 24, 20:00

Katalunia plaza (karpa). Urria 01, 18:00

Euskal Herriko eta Txinako milaka urteko kulturei buruzko umorezko ikuskizuna da *Roland eta Garrós*

**FABIOLO CONNECTION:
MATCH TO THE FUTURE**

RAFA MAZA
KOMEDIA
gaztelera

Etxarriene Zentroa. Iraila 24, 19:00
Sagastieder plaza (karpa). Iraila 25, 18:00
Doka. Iraila 26, 19:00

Jeke baten alabari tenis-eskolak emateko kontratatu dute Fabiolo. Hemen bizi-bidaia berri bat hasiko da Sotograndeko "pijo" aho-bero bizenarentzat.

HACKERRAK
NOMOFEBIKAK
KOMEDIA
euskara

Sagastieder plaza (karpa). Iraila 25, 12:30
Katalunia plaza (karpa). Urria 01, 20:00

Lan falta dela-ta, hiru aktoreek onartuko dute robotika aztertzeko adimen emozionaleko proba batzuetan parte hartzea.

BETE INGOIAU
ZUTANI
UMOREA
euskara

Sagastieder plaza (karpa). Iraila 25, 20:00
Antxon Ayestaran Gunea (Añorga). Urria 01, 19:30
Katalunia plaza (karpa). Urria 02, 20:00
Easo plaza (karpa). Urria 10, 20:00

Antzerki Sorkuntza Lehiaketaren aurtengo edizioko finalista. Gasolindegi batean lan egiten dute Petrak eta Leok, bikote protagonistak. Honek, gasolindegiak, makina bat sekretu gordetzen ditu.

HAMAR URTE
ON THE ROAD
BARRY MANLEY
BAKARRIZKETA
euskara

Sagastieder plaza (karpa). Iraila 26, 20:00

Zorionak Barry Barrez. Zure eguna iritsi da eta ez zara lehen bezain gaztea. Orain da zure bizipenen inguruan hausnarketa egiteko unea.

TXIKI: 40 URTE
TA ALDAPAN BEHERA!
ION MARTINEZ *TXIKI*
BAKARRIZKETA
euskara

Sagastieder plaza (karpa). Iraila 26, 12:30

Ez dakizu oso ondo nola, baina denbora aurrera doa eta nahi ala ez, 40 urteak hor zeuden, eta iritsi dira. Etapa berri bati ekin diozu, 40 MADARIKATUAK!

LAS DOSTOYEVSKY
GURUTZE BEITIA
& MARIBEL SALAS
BAKARRIZKETAK
gaztelera

Sagastieder plaza (karpa). Iraila 26, 18:00
Easo plaza (karpa). Urria 09 Octubre, 18:00

Gurutze Beitiak eta Maribel Salasek euren esperientzia pertsonalen zenbait alderdi bitxi kontatuko dizkigute gizakiaren psikologia eta gizarte testuingurua aztertuz, umorearen eta kritikaren ikuspegitik.

PRONOIA
VIRGINIA IMAZ
KLOWN
gaztelera

Katalunia plaza (karpa). Urria 02, 12:30

Pronoia: Paranoiaren aurkako egoera mentala, non pertsona ziur dagoen unibertsoak pertsonen alde konspiratzen duela. Pauxa pailazoak genero-indarkeriari buruzko hausnarketa egiten du, eta, oro har, giza harremani buruzko kezka partekatzen ditu.

EL MARAVILLOSO MUNDO
DE LAS OTRAS CRISIS
LAS PITUISTER
KOMEDIA
gaztelera

Katalunia plaza (karpa). Urria 02 Octubre, 18:00
Katalunia plaza (karpa). Urria 03 Octubre, 20:00

Antzinaroan, krisi ekonomikoaren aurretik, zertaz egiten zen hitz? Jakin genuen krisiaz ere hitz egiten zela, baina beste krisialdi batzuez, bizitzako betikoez.

**EL MARAVILLOSO MUNDO
DE LAS OTRAS CRISIS**

LAS PITUISTER
KOMEDIA
gaztelera

Katalunia plaza (karpa). Urria 02, 18:00
Katalunia plaza (karpa). Urria 03, 20:00

Antzinaroan, krisi ekonomikoaren aurretik, zertaz egiten zen hitz? Jakin genuen krisiaz ere hitz egiten zela, baina beste krisialdi batzuek, bizitzako betikoez.

**DOS VASCAS
Y UN DESTINO**

NEREA GARMENDIA &
ALAZNE ETXEBERRIA
BAKARRIZKETAK
gaztelera

Katalunia plaza (karpa). Urria 03, 18:00
Easo plaza (karpa). Urria 10, 18:00

Etorkizun baten bila dabilen bikote miresgarri eta xelebre bat da. Aurre egiten dien etorkizun bat, eszenatokian elkartu dituen eta umore handiz guri kontatzera datozena. Ez al dituzu entzun nahi?

**CIRC-CABARET
ARMANDO RISSOTTO**

TXO TITELLES
TXOTXONGILOAK
gaztelera

Easo plaza (karpa). Urria 08, 18:00

Zirkuari eta barietate antzerkiari omenaldi xumea. Familiei zuzendutako sorkuntza ikuskizuna.

**TRES EN UNO
ELVI VENTRÍLOCUO**

BENTRILOKIA
gaztelera

Easo plaza (karpa). Urria 09, 12:30

Elvik umore fin eta dotoreko ikuskizun original, harrigarri eta partehartzaile bat aurkezten digu. Ikusleen dibertsioa eta barrea dira show bakoitzaren azken helburua.

REAL BOOK. VOL.I

IÑAKI SALVADOR
& LOYOLA GARMENDIA
KOMEDIA MUSIKATUA
gaztelera

Easo plaza (karpa). Urria 10, 12:30

Loyola eta Iñaki agertokian daude publikoa lagun dutela eta ustekabeko protagonista bihurtu dira bat-bateko saio batean. Jatorriz legez kanpoko den liburu bat erori da euren eskutan, Real Book-a. Ea nola ateratzen diren egoera korapilatsu honetatik ...

FESTA

ASKOTARIKOA
euskara

Easo plaza (karpa). Urria 09, 20:00

Poltsiko Antzerkiaren 30. jaialdiaren amaiera ekitaldia. Hainbat artistaren saioak izango ditugu: Nerea Arriola *DOLOX seño*ren paperean, Ion Martinez *Txiki 40 urte ta aldapan behera!* bakarriketarekin eta amaitzeko, Las Fellini konpainiaren *Show de transtornismo* saioa.

Harremanetarako:

kultur_ekintza@donostia.eus
(943 48 38 40)